

DEIALDIA, OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO INDUSTRIA-INGENIARI TEKNIKOAREN 3 PLAZA

IZENDAPEN-PROPOSAMEN OSAGARRIA IGORTZEKO ERABAKIA.

Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko industria-ingeniari teknikoaren 3 plaza oposizio bidez betetzeko deialdiarekin bat –deialdi hori Tokiko Gobernu Batzarrek 2024ko azaroaren 27an hartutako erabakiaren bidez onetsi zen, eta 2024ko 261. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 26koan, argitaratu zen–, oposizioa kalifikazio-epaimahaiak aurkeztu zuen proba gainditu duten eta deialdian eskaturiko betekizunak betetzen dituzten izangaien aldeko izendapen-proposamena, deialdian eskaini zen plaza kopuruaren arabera. Izendapenak Tokiko Gobernu Batzarrek 2026ko maiatzaren 4an hartutako erabakiaren bidez [JOB 04-MAY-26 (24/RH)] egin ziren, eta 2026ko 94. NAO-n, maiatzaren 15ekoan, argitaratu.

Izendatutakoen artean, JOSÉ ÁNGEL GIL INAGAK borondatezko eszedentzia eskatu zuen, plaza noiz hartu eta egun horretatik aitzina (2026ko ekainak 23). Deialdiaren 10.3 oinarriak ezartzen du izangaiak funtzionario bihurtu eta, lanpostuan batere aritu gabe, zuzenean eta beraiek eskatuta borondatezko eszedentzia ematen bazaie plazaren jabetza hartzen duten egunetik beretik –indarreko araudian ezarritako kasuetan–, kasuan kasuko plaza hutsa ere beteko dela deialdiaren 9.4 zenbakian xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzarrek 2026ko ekainaren 24an egindako bilkuran honako erabaki hau hartu zuen:

1. Izendapen proposamena osatzea, barne hartuta igoera txandako hurrengo izangaiak, bete beharreko plazaren betekizunak betetzen baititu:

ABIZENAK ETA IZENA	PLAZA
SAGÜÉS GARCÍA, XABIER	1-200209-7

Epaimahaiaren proposamena ikusita, eta Nafarroako Administrazio Publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloan aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen 7/2025 Foru Legeak, ekainaren 4koak, 1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ERABAKITZEN DA:

1.- Proposatutako izangairi eskatzea 9.2.1 oinarrian eskatzen den dokumentazioa aurkez dezala Iruñeko Udalaren erregistro orokorraren bidez, proposamen hau deialdiaren web-fitxan argitaratu ondoko 10 egun balioduneko epean.

3.- Erabaki hau www.pamplona.es/euwebgunean argitaratzea, deialdiaren fitxan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an.- Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.